

Andoain Esan herri galdeketa antolatzeke lanetan ari da

Datorren azaroaren 5ean “Nahi al duzu euskal estatu burujabe bateko herritar izan?” galdetuko zaie andoaindarrei.

Andoaingo herri galdeketa gauzatzeko prozesua azken txanpan sartzen ari da. Apirilean aurkezpena egin zenetik, galdeketa gauzatzeko mila eta bos-tehun sinadura lortu dira eta dagoeneko herritarrei zein galdera egin adostu da. Azaroaren 5eko kontsultari begira, **Andoain Esan** ekimeneko kideak ekimen betean dira. Datozen egunetan, Andoaingo etxeetan galdeketa parte hartzeko botoak jasoko dituzte argibidez osaturiko eskuorriarekin batera.

Urriaren 28tik aurrera, berriz, gizarte mailako ekitaldi sorta antolatuko dute: Giza-katea, gazte solasaldia Julen Telleriarekin, Anjel Oiarbide-



Astearte iluntzean Jordi Cuixart Omnium Cultureleko eta Jordi Sanchez ANC ekimeneko buruzagien espetxeratzea salatu eta elkartzuna adierazteko elkarretaratzea egin zen Goikoplazan, Gure Esku Dago ekimenaren eskutik.

ren hitzaldia eta Kike Amonarri, Beñat Sarasola eta Oihana Iguaran Tolosaldeko kideekin mahai-ingurua.

LAGUNTZAILEEN PREMIA

Antolaketa lanetan eta egunean bertan aritzeko laguntzaileen premian daude. Izena emateko:

- Batzar irekia boluntario berrientzat Kale Berriko egoitzan, urriaren 25ean, asteazkenarekin, 19:00etan hasita.
- Emaila: andoainesan@gmail.com

Eskualdeko bus zerbitzuen egitasmo berriak hautsak harrotu ditu

Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko eta Lurralde Antolamenduko sailaren egitasmo berriak eskualdeko bus zerbitzuetan eragin handia izan dezake, Marisol Garmendia diputatu sozialistak atzera egiten ez badu. Zerbitzu publikoko autobusen kontzesiorako irizpide berriak zehaztu dituzte, eta eskualdeko Udalak aurka agertu dira. Zehazki, G2 Andoain-Urnieta-Hernani-Donostia, G3 Andoain-Ospitaleak eta G4 Urnieta-Hernani-Donostia gaueko bus lineatarako proposamen berriekin. Funtsean, astean zehar eta asteburuetan maiztasuna murriztea aurreikusten da. Lehenik EH Bilduko alkate-tza duten Andoain, Hernani eta



LAB sindikatuak agerraldia egin zuen joan zen asteartean Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundiaren parean.

Usurbil herriak kontra agertu ziren. Egun batzuk geroago, Urnietako Udalak ere egitasmo-

arekiko desadostasuna agertu du. LAB sindikatuak ere, bus garraiolarien eta erabiltzaileen

ikuspegitik, kritika egin dio Aldundiari.

[ESKUALDEA, 6. ORR.]

Eskualde mailako lehen gazte ginkana



Buruntzaldeko euskararen ginkanaren lehen edizioa martxan jarri da, euskararekin eta euskaraz dibertitzeko asmoz. Lehiaketan parte har dezakete Andoain, Urnieta eta eskualdeko 12-16 urteko gazteek. Lehiakideek euskararekin, hizkuntza aniztasunarekin eta hizkuntza-ekologiarekin lotutako hainbat proba burutu behar izaten dituzte. Taldeka jokatu da eta internet bidezko lau proba ezberdinetan aurrera egiten duena finalera sailkatuko da. Saria ez da, ez, nolana izango izango. Txapeldunak 1.000 euroko saria jasoko du eta txapeldun-ordeak 500.

Izen-ematea egiteko epea dagoeneko irekita dago. Informazioa Gazte Lokalean eskuragarri dago.

Zaborren bilketa berria martxan da Urnietan

Urnietan materia organikoa biltzeko edukiontzi marroia egunero ireki ahal izango da; errefusaren edukiontzi grisa, berriz, asteazken eta igandetan soilik. Edukiontziak zabaltzeko txartelak banatu dituzte.

[URNIETA, 4. ORR.]

PAUSOKA EGUNA

Pausokaren aldeko elkartasun eguna

Behar bereziak dituzten haurren aldeko Pausoka elkarteak ospakizuna antolatu zuen, joan zen larunbatean. Lagun asko hurbildu zen Egape ikastolako jolastokira, haietako batzuk boluntario lanetan

aritzera eta gainerakoak aisialdiaz edota jatekoetz gozatzera. Eguraldia lagun, egun ederra izan zen. Iluntzean, puxikak airera botatz eman zioten jaiari amaiera.



Hainbat paella erraldoi prestatu zituzten larunbatean, Pausoka egunean.



Bazkariaren aurretik urnietarrek egindako taloa dastatu zuten Pausoka egunera hurbildu zirenek.

Urriaren 14koa ospakizun handia izan zen Pausokarentzat. Eta kideentzat bereziki hunkigarria. **Maria Lesaca**ren hitzak adierazgarriak dira: “Oso hunkigarria da guretzat, jendearen erantzuna bikaina izan delako. Egun horretan aldez aurretik egindako lan guztiak herritarrengan erantzuna eragiten duela ikustea hunkigarria da. Ez ditut erakundeak ahaztu nahi. Urnietako, Hernaniko edota Aldundiko ordezkariak bertan izan ziren”.

Urnietarren begietara **Pausoka eguna** geratuko bada ere, behar bereziak dituzten haurren gurasoentzat garrantzia bertukoa izan da aurreko astean zehar egindakoa. **Gipuzkoako itzulia** Pausokako haurren errealitatea bistaratzeko gutziz bali-

garria izan da. Astebetez, herriz herri, korrika irten dira eta herrigune ia guztietan korrikalariak ikasle gazteak parte hartzeko zain zituzten: “Ikusgarria izan da astean zehar ikastetxeen aldetik jaso dugun erantzuna. Astelehenean hasita, Lasarte-Oriatik ikastola bateko ikasleekin abiatu ginen eta Usurbilera iristean 400 haur eta gazte zain genituen!”.

Lasterketa ikasle horientzat ikasketa prozesu txiki baten amaiera izan da. Aldez aurretik ikastetxeetan behar bereziak dituzten haurren inguruko unitate didaktikoa landu baitute. Pausokako haurrak ikusgarri bihurtu nahi dituzte, kontzientziak pixkanaka-pixkanaka gizarie inklusibo batera bideratuz. Ez di-

tu korrikalariak ahaztu nahi, bereziki **Kepa Gordo** lasterkaria: “Hark, itzulia egitasmoan egiteko murgildu gintuen. Buruko minbizia igarota, gurekin irteteko ahalegin handia egin du. Osasunez ez dago egoerarik onenean eta lasterketa osoa egiteko laguntzaileak izan ditu”.

ELKARTEA SENDOTUZ DOA

Orain arte egindakoak indar berezia eman die, etorkizunari begira: “Haur guztien errehabilitazioa bermatzeko lanean jarraituko dugu, familia bakoitzaren egoera ekonomikoa oztopo izan ez dadin. Goruntz goaz, dagoeneko esan daiteke oinarri sendoak ditugula. Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Zer-

bitzuen lansaila dagoeneko gure egitasmoari hauspoa emateko lanean ari da. Une hauetan harremanetan gaude **Maite Peña** eta **Txaro Rodriguezekin**. Eurak bere aldetik gure kasua Osasuna eta Hezkuntza lansailekin bideratzen ari dira, denen artean lagun gaitzaten. Badirudi dena martxan dagoela. Dagoeneko gure elkarte balioan jartzen ari dira; jakin badakite 5 familiekin hasi ginela eta dagoeneko 130 familiei terapia ezberdinak eskaintzen dizkiegula”.

2019a urruti dago, eta data hori izango da hurrengo Pausoka eguna ospatzeko urtea. Bitartean, lanean jarraitzen duten bitartean, egunotan bizi izandakoak goza dezatela.

Sanmielelako eta Xoxokako jaien jarraipena aiurri.eus gunean

ARGAZKIAK
BIDEOAK
EGUNEZ EGUN

PAUSOKA EGUNA



Porrotx pailazoak dantza, kanta eta alaitasuna ekarri zuen Urnietara egindako bisitaldian.



Haurrak saskibaloian aritu ziren, egokitutako saskibaloijokalarien antzera.



DJ tailerra egin zuten Egape ikastolako jolastokian.



Margotzeko tallerrean, taberman edota janari postuetan urnietar ugari aritu zen lanean.



Vicen Carmona urnietarra.

Pausokaren aldeko Gipuzkoako itzulia izan da aurtengo Pausoka Egunaren berrikuntza nagusia. Ospakizunaren berri eta behar bereziak dituzten elkarten berri emateko korrikalari talde batek, astebetetz, Gipuzkoa korrika zeharkatu du. Urriaren 7an Hernanitik Hondarribi aldera abiatu ziren, eta hortik aurre-

Urriaren 7tik 14ra korrika eginez iragarri zuten Pausoka eguna Gipuzkoan zehar

“Txaloak boluntarioek merezi dituzte, hain eskuzabal jokatzegatik”

ra Gipuzkoako eskualde guztiak zeharkatu zituzten. Urriaren 14an itzuliaren azken etapa egin zuten, Amasa-Villabonatik abiatu zena. Aduna eta Andoain zeharkatu eta gero, Urnietako Salesiar ikastetxera iristean helmuga ikusten ari ziren. Lasterketa osoko unerik hunkigarriena huraxe izan zen, alde zurretik ipinitako erronka zail eta gogorra portu onera iritsi zela ikusi baitzuten une horretantxe. Pausokako azken etapa haurrarekin batera egitera animatu zen elkarteko kide bat baino gehiago. Horien artean **Vicen Carmona** urnietarra, Markelen aita. Semearekin egin zuten azken etapa, baina ez hori bakarrik, aurreko aste osoan zehar lasterka aritu zen Gipuzkoako itzulia osatuz. Helmugara iristean pozarren zegoen.

Itzulia amaitu berri, aurpegi ona duzu...

V.C. Egia esango dizut, lehertuta nago. Etxera iristean atsedean hartuko dut. Zortzi egunez aritu gara korrika, 28 ki-

lometro inguru egiten. Portuak igo, portuak jaitsi..., toki zoragarrietatik igaro gara. Esperientzia ederra izan da. Egun batean edo beste parte hartzeko asmoa nuen, baina jendea hurbiltzen zen eta paisaiak ikusgarriak zirenez, azkenean emozioak jota ibilbide guztia osatu dut.

Elkartea ezagutarazteko ekimen garrantzitsua, zalantzarik gabe...

V.C. Helburuetakoa Pausoka elkarteko haurrak ikusgarri bihurtzea zen, eta hori lortu dugu. Ikastetxe askotatik irten dira gurekin parte hartzera. Sentsibilizazio lan bat egin da, beraz. Juneren hegoak, Sanfilippo edota Pausokako haurrentzat garrantzia handikoa izan da.

Taldean aritu zarete lasterketaren buruan, zortzi egunez...

V.C. Jende asko ibili da gurekin eta denen ekarpena eskertu nahi dugu. Egunez egun hortxe ibili dira, bereziki, Ja-

vier Delgado, Carmen Perez, Kepa Gordo, Iñaki Baños Osa...

Zer sentitu duzue zortzi egunez Gipuzkoa zeharkatu eta gero, Urnietara iristean? Hunkitu al zarete helmugara iristean?

V.C. Ikusgarria izan da. Niri normalean negar egitea kosta egiten zait, eta mal-koren bat edo beste atera zait. Pausokako guraso eta haur gehiagorekin iritsi gara, eta oso hunkigarria izan da.

Elkarteari hauspoa ematen dion osagarri nagusia elkartasuna da...

V.C. Halaxe da. Elkartek aurrera egin dezan lagun askoren laguntza behar izaten dugu. Haurren gurasoak, lagunak, senideak, herrikideak..., behar-beharrezkoak ditugu. Aurtengo Pausoka egunean, esaterako, lanean berrehundik gora lagun daude. Ospakizuna laguntza hori gabe ezinezkoa litzateke. Txaloak boluntarioek merezi dituzte, gure haurren alde hain eskuzabal jokatzeko dutelako.

Bi hitzaldi Lekaion

Urnieta eta 1936-1945 epealdi historikoa aztertzeke Udalak eta Aranzadik sinatu duten programaren baitan, bi hitzaldi eskainiko dituzte Lekaio kultur etxean. Ostiral honetan, 19:00etatik aurrera, Aranzadiko **Eneko Sanz** historialaria errepresioaren gaiaren inguruan arituko da.

Urriaren 27an, berriz, **Oscar Alvarez** EHUko irakasleak hartuko du hitza, erbesteari buruz jarduteko.

Gatazka belikoa bera baino gehiago, herritar xeheek bi hitzaldirekin 1936ko kolpe militarren ondorioz herritarrek jasan zuten sufrikarioa aztertzea dute xede.

Kataluniarekin elkartasuna



San Juan plazan elkarretaratzea egin zuten, joan zen asteartean.

Kataluniako egoera politikoa nahasi samar dabil egunotan, eta Euskal Herrian elkartasuna adierazteko ekimen bat baino gehiago izan dira. Azkenak, joan zen asteartean, Jordi Cuixart Omnium Cultureko eta Jordi Sanchez

ANC ekimeneko buruzagien espetxeratzea salatu eta elkartasuna adierazteko elkarretaratzeak izan ziren. Hainbat urnietarrek bat egin zuen Gure Esku Dagoren deialdiarekin, eta San Juan plazan elkarretaratu ziren.

Mintzalaguna egitasmoa

Urnieta AEK deialdia igorri du, datorren asterako hitzordua iragarritz: "Mintzalagun egitasmoari hasiera emateko garaia heldu zaigu eta

Urnieta AEK euskaltegi berriaren aurkezpena egitera goaz. Datorren urriaren 25ean izango da, arratsaldeko 19:00etan hasita, euskaltegian".

Ipuin kontaketa saioak

Irakurzaletasuna sustatzeko helburuarekin, etxeko txiki-entzatat ipuin kontaketa saioak antolatuta dituzte urriatik abendura. Kontaketa

saioak lau urtetik gorako haurrentzat dira, Marisa Tabernerok ipuin kontalariak eskainiko dituenak.

Urriak 20, ostirala. 17:30.

Bigarren berdintasun plana

Udalak berdintasun politikei bultzada sendoa ematea erabaki du, eta aste honetan jakinarazi dutenez, bigarren Berdintasun plana abiatu behar

dute. Berria martxan jartzeko garatu den prozesuan ikuspegi tekniko, politikoa eta komunitarioa barneratu dituzte herriko elkarteekin batera.

Odol-emaileen bilkura

Gipuzkoako Odol-emaileen elkarteak intsigniak eta diplomak banatuko dizkie hainbat kideri, datorren urriaren 29an Oianume sagardotegian egingo duten ekitaldian. Urnieta-tik honakoak nabarmenduko dituzte: **Ana Jesus Salsamendi, Berta do Santos, Jose Miguel Ruiz eta Jose Ignacio Rodriguez.**

EGITARAUA:

13:15 Odol emailei harrera.

13:30 Domina, diploma eta garaikurren banaketa.

14:30 Bazkaria. Prezioa: 36 euro. Izena emateko azken eguna urriaren 21a da.

Izena-emateko: 628 345 199 (Izaskun).

Astelehenean hasita, edukiontzia irekitzeko sistema aldatu da

Zaborren bilketa sistema berria martxan da



Mikel Pagola alkatea eta Jorge Segurado zinegotzia, bilketa sistema berria iragartzeko agerraldian.

Astelehenean hasita, organikoaren eta errefusaren edukiontzia, derrigorrean, txartelarekin ireki behar dira. Materia organikoa biltzeko edukiontzi marroia egunero ireki ahal izango da; errefusaren edukiontzi grisa, berriz, asteazken eta igandetan soilik. Plastikoa, beira, pilak eta paperaren edukiontzia lehen bezala erabili ahal izango dira, egunero.

Udal gobernuko **Mikel Pagola** alkateak eta **Jorge Segurado** zinegotziak eman zituzten azalpenak urriaren 11n, prentsaurerakoan. Alkateak aditzera eman zuenez, "Udalak hondakin kudeaketa ariketarik egokiena egin nahi du, eta horregatik urrats berria eman du. Ingurumenarekiko konpromiso sendoa hartu nahi badugu, derri-gorrezkoa dugu guztion artean Urnieta bilketa selektiboaren tasa igotzea. Egun, landa eremua, herrigunea eta industriguneak kontuan hartuta, %52 birziklatzen da Urnietan. Bere garaian Udaleko hiru alderdiek gutxienez %65ra igotzeko konpromisoa hartu genuen, eta bide horretatik jo beharra dago".

Txartelaren bitartez ezarritako derrigortasunaren zergatia azaldu du Pagolak. "Errefusaren edukiontzia irekiera asteazken eta igandetara mugatuko da, eta horrekin lortu nahi dugu herritarrek etxean sortzen dituzten hondakinak etxean bertan banatu eta birziklatzea".

Alkateak egunerokotasunean ohitura hartzeari eman zion garrantzia: "Behin etxeko lan horretara jartzen garenean, konturatzeko gara birziklapena lantzea egunero-egunero egiten

BILKETA EGUNAK

MATERIA ORGANIKOA

Edukiontzi marroia egunero ireki ahal izango da.

ERREFUSA

Edukiontzi grisa asteazken eta igandetan, soilik.

PLASTIKOA, BEIRA, PILAK, PAPERA

Egunero.

dugun ekintzarik errazenetakoa dela, ohitura batzuk hartzea dela kontua, eta ez duela aparteko ahaleginik eskatzen. Horretara jada ohitu garenok badakigu zertaz ari garen".

Alkateak aitortu du sistema berriak zenbait herritarrengan erresistentziarik eragin dezakeela. Horregatik, mezua helarazi die: "lankidetzaren eskaera egin nahi diegu Urnieta herritarrei, beharrezkoa baita beren inplikazioa. Sinetsi egin behar dute sistema berria mesedegarria dela, ingurumenaren alde. Norbaitek pentsa dezake zailtasunak jartzen ari garela; hala izan daiteke agian, baina gauzak ondo egiten ikasteko neurriak dira ezarri ditugunak. Eta dinamika horretan sartzen garenean, ziur nago hasierako erresistentzia horiek gaituz joango garela guztiok, eta erraz egin daitekeen lana dela konturatuko garela. Gainera, ondo egiten badugu, agian ez da beharrezkoa izango bi egun horietan errefusaren edukiontzia ireki behar izatea, eskarmentuak esaten baitugu baxu-baxua izaten dela horra joan ohi den kopurua".

"Lankidetzaren eskaera egin nahi diegu Urnieta herritarrei, beharrezkoa baita euren inplikazioa"

"Landa eremua, herrigunea eta industriguneak kontuan hartuta, %52 birziklatzen da Urnietan. %65ra igotzeko konpromisoa hartu genuen ordezkaritza dugun alderdiek"
Mikel Pagola alkatea

SALBUESPENAK

ERREFUSAREN IREKIERAN

Errefusaren edukiontzia bi egunetan ez baizik eta egunero zabaltzeko aukera izango dute, esate baterako, haur oihalak erabiltzen dituzten gurasoek (Otik 4 urte bitarteko haurrak dituztenak), edota mendekotasuna duten adineko pertsonak etxean dituzten familiek. Horretarako, interesa dutenek Udalean eskaera egin beharko dute.

HERRIAREN HEREN BATEK EZ DU TXARTELA ESKURATU

Jorge Segurado zinegotziak adierazi zuenez, urriaren 11 bitarte 5.000 txartelatik 3.382 banatu zituzten. Azken egunetan, urriaren 14ra bitarte kopuru hori igo egin zen.

Birziklapenaren eta edukiontzia horien erabilerrari buruzko azalpen praktikoak ondoren emateko prest egon dira zenbait informatzaile. Datozen egunetan informatzaileak non eta zein ordutan egongo diren jakiteko hitzorduak Agenda atalean ikusgai daude.

MEMORIA HISTORIKOA

1936ko Gerran eraildako Udal ordezkariak gogoan

1936ko gerran erail zituzten Gipuzkoako hogeitaz hamar alkate eta zinegotzi omendu zituzten Deban, joan zen igandean. Haietatik lau Beterri-Buruntza-Aiztondo eskualdekoak dira: Juan Jose Izeta Urnietako

zinegotzia (EAJ), Nemesio Fernandez Andoaingo zinegotzia (EAJ), Constantino Segurola Asteasuko zinegotzia (Katoliko independentea), eta Valeriano Saizar Villabonako zinegotzia (EAJ).

Ekitaldiak 1936ko biktimen familiartekoak eta aipatu herrietako ordezkari politikoak bildu zituen. Deban Markiegiren omenez jarrita dagoen bustoaren parean burutu zen, eta Gipuzkoako Ahaldu nagusi Markel Olanok eta Debako alkate Pedro Bengoetxeak hartu zuten hitza. Omenaldian zehar Markiegik fusilatu aurreko egunetan idatzi zituen gutunak off ahotsaz irakurri zituzten, eta Debako Udal musika bandak eta abesbatzak musika emanaldia eskaini zuten.

Markel Olanok adierazi zuenez, omenduak jatorri eta ideologia desberdineko pertsonak ziren, gerran aurkako bandoetan egon zirenak: jeltzaleak, errepublikanoak, sozialistak eta karlistak. "Guztien arteko lotura zen kargu hautetsiak zirela, herriaren borondatea ordezkatzeko zutela, eta horregatik erail zituzten", gaineratu zuen Olanok.

GIPUZKOAKO HOGEITAZ HAMA ALKATE ETA ZINEGOTZI OMENDU ZITUZTEN

Hona 1936-1938 bitartean hil zituzten alkate eta zinegotzi gipuzkoarren izen-abizenak:

- Juan Jose Izeta, Urnietako zinegotzia (EAJ).
- Nemesio Fernandez, Andoaingo zinegotzia (EAJ).
- Constantino Segurola, Asteasuko zinegotzia (Katoliko Independentea).



Urnietako Juan Jose Izetaren senideak eta Urnietako Udal ordezkariak Debako ekitaldian izan ziren.

- Gabino Alustiza, Aiako alkatea (EAJ).
- Polentzi Markiegi, Debako alkatea (EAJ).
- Canuto Ugalde, Elgetako zinegotzia (Koalizio Katoliko Errepublikanoa).
- Florencio Iratxeta, Irungo zinegotzia (PSOE).
- Evaristo Larrañaga, Irungo zinegotzia (PSOE).
- Jesus Uranga, Arrasateko zinegotzia (UGT).
- Leoncio Aranburu, Oiartzungo zinegotzia (EAJ).
- Manuel Irigoien, Oiartzungo zinegotzia (EAJ).
- Serapio Mendarte, Errenteriako zinegotzia (EAJ).
- Saturio Burutaran, Donostiako zinegotzia (EAJ).
- Pedro Soraluze, Donostiako zinegotzia (Monarkikoa).
- Luis Iglesias, Donostiako zinegotzia (UGT).
- Jose Ceferino, Donostiako zinegotzia (UGT).
- José Maria Patemina, Donostiako zinegotzia (Kontserbadorea).
- Pedro Caballero, Tolosako zinegotzia (Tradizionalista).
- Rufo Andoño, Tolosako zinegotzia (Tradizionalista).
- Valeriano Saizar, Villabonako zinegotzia (EAJ).

Juan Jose Izeta Urnietako zinegotzia

Juan Jose Izeta Arrue Mozotegi baserrian (Goiburua auzoa) jaio zen, 1909ko uztailaren 28an. Senideak honakoak izan zituen: Joakin, Manuel, Modesto, Karmelo, Maria, Mikela, Ramon, Jeronimo eta Joxepa. 1936an Goiburua auzoko Galarদি Borda baserrian bizi zen, Urnietan eskola publiko irakasle zen Angela Arrue bere izebarekin batera (Urnietako Udal artxibategia).

Juan Jose ezkongabea zen, eta baserritarra ogibidez. Ideologia abertzalekoa zen, eta EAJko zinegotzia Urnietan, 1931ko apirilaren 12ko Udal hauteskundeetako geroztik. 1936ko irailaren 18an atxilotu zuten faxistek. Baina horretarako, jakin behar diren aurreko egunetan gertatu ziren gertakariak. Gipuzkoako mendean hartzeko asmotan Nafarroatik Molak gidatuta abiatu ziren tropa faxistak abuztuaren 16an sartu ziren Andoainean. Buruntza abuztuaren 30ean lortu zuten hartzea; ordura arte indar errepublikanoek gogor eutsi zioten goi-pozizio estrategiko horri, nahiz eta armez eskas ibili.

Andoaingo eta Urnietako herritar ugari exodo-

an parte hartu zuen abuztuko lehen egunetan, jakinaren gainean baitzeuden tropa altxatuek herri bat hartu eta agudo giza sarraskiak egiten hasten zirela, atxilotetak, desagerketak, ile mozketak... Nolanahi ere, altxamenduarekin bat egiten ez zuen beste hainbat jende etxean geratu zen, sinetsita ez ziotela inori kalterik egin eta ez zutela errepresaliarik jasango. Horieta bat izan zen Juan Jose Izeta.

Izeta irailaren 18an atxilotu zuten, Urnietako eta Andoaingo beste bederatzita pertsonekin batera. Alegia, Urnietako Manuel Lasarte eta Rafael Barkaiztegi (semea) eta Andoaingo Sixto Prestamero, Sekundino Anton, Jose Lasar, Ramon Gantzarain, Maximino Lasarte, Faustino Aldaz eta Mikaela Aldaz. Andoaingo komandantzia militarrean eraman zituzten denak ere, matxinada militarrean akusaziopean. Eta handik Ondarretako espetxera hurrengo egunetan.

Sekundino Antonen familiak Aiurri aldikariari utzi dizkion agirien arabera, Donostian gerra-kon-

tseilu sumarisimoa ezarri zitzaizen. Garaitu hartan Donostian eguneroko bihurtu ziren epaiketa fartsa haietako bat jasan zuten hamar lagunek: zilegitasun demokratikoa zeukan II. Errepublikaren aurka indarkeriaz altxatu zirenek herritar errugabeak errebelio militarren salaketapean epaitzea, alegia. Epailak, fiskala eta akusatuen defendatzaileak, denak ere militar kolpe zaleak izan ziren. Gainera, epaiketan zehar, Andoainean eta Urnietan kolpe militarren alde egin ostean agintean jarri ziren zenbait pertsona kualifikatuaren deklarazioak (alkateak, idazkariak...) hartu ziren kontuan azken epaia atontzeko; auzipetuaren aurkako deklarazioek egin zituzten guztiek ere. Izetarengandik adierazi zuten milizia marxistekin jardun zuela. "Su-jeto peligroso y muy separatista" omen zen.

1936ko urriaren 14an jakinarazi zuten epaia gupidagabea izan zen: heriotza-zigorra Manuel Lasarte, Juan Jose Izeta, Rafael Barkaiztegi, Sixto Prestamero, Sekundino Anton, Jose Lasar eta Faustino Aldazentzat; 30 urteko kartzela zigorra

Mikaela Aldazi, eta 15 urteko kartzela zigorra Maximino Lasarte eta Ramon Gantzaraini. Ondarretako patioan erail zituzten lehenak, urriaren 20an, eta Polloeko hilerrian lurperatu. Mikaela Aldaz Saturrarango kartzelara eraman zuten, eta Maximino Lasarte eta Ramon Gantzarain, berriz, Burgoskora.

Berrogei urteko diktadura frankistak berebiziko saiakerak egin zituen 1936ko kolpe militarren ondoren errepresioak zapaldu zituen herritar horien izena eta memoria ahazturaren leizean gal zitezten. Ondoren ezarri zen demokraziak ere ez zuen ahalegin berezirik egin justizia ezarri zedin behingoz, nahiz eta azken urtetan abian jarri diren zenbait ekimen herri elkarteetan eta instituzioen alde-tik, Debakoaren antzekoak. Utzikeria horren adierazle izan daiteke, honako datua: egun, Espainiako justiziarentzat, ofizialki, Andoaingo eta Urnietako hamar herritar horiek gaizkileak eta altxamendu militarren eragile edo laguntzaileak izaten jarraitzen dute.

GARRAIO PUBLIKOA ERREGULATZEKO GIPUZKAOKO FORU ALDUNDIAREN EGITASMO BERRIA

Bus zerbitzuaren erregulazio berriak kritikak eragin ditu

Zerbitzu publikoko autobusen kontzesiorako Foru Aldundiak aurkeztu duen aurreproiektuak eskualdeko Udalen kexak eragin ditu. Andoain, Hernani eta Usurbil udalerriak izan ziren kexa agertzen

lehenak, hirurak EH Bildukoak. Aurreko astean Urnietako Udala (EAJ-PNV) ere Aldundiaren egitasmoaren aurka agertu zen, eragina duen udalerriekin iritzia alderatu ez duela argudiatuta.

Urnietako Udala

“Urnietako Udalak bere herritarren interesak defendatuz jarraituko du ahalik eta zerbitzu publikorik onena izan dezaten”

“Aurreproiektuak Udalak partekatzen ez dituen hainbat murrizketa proposatzen ditu G-2, G-3 y G-4 autobusetan, Udalak argi baitu herritarren beharrak asetzen dituen kalitatezko zerbitzu publiko baten aldeko apustua egiten jarraituko duela.

Testuinguru horretan, aurreproiektuaren zenbait atal aldatzea proposatzen du:

- **G2 Andoain-Urnieta-Hernani-Donostia** autobusari dagokionez, garrantzi handia ematen dio eguneko lehen orduko eta eguerdietako zerbitzua mantentzeari, izan ere, 07:00-09:00 eta 13:00-15:00 bitartean jende asko erabiltzen du zerbitzua eskolara edo unibertsitatera joateko edo handik bueltatzeko. Era berean, Donostiatik irteten den azken autobusaren orduetgia luzatzeko eskaera egiten du.
- **G3 Andoain-Ospitaleak** autobusaren kasuan ibilbidea Amarraino luzatzeko aukera proposatzen du. Urnietarrek han dituzte Osakidetzako espezialista batzuk, eta horrenbestez, zuzenean autobuses iristeko aukera izango lukete.
- **G4 Urnieta-Hernani-Donostia gauekoa** berriz, Astigarragatik igarotzea proposatzen du aurreproiektuak, baina ez du zehazten, ordea, handik Donostiarainoko ibilbidea zuzenean eta geldialdirik gabe egingo lukeen edo erabiltzaileek autobusera igo eta bertatik jaisteko aukera izango luketen Amarran eta Riberasen, esate baterako”.

Andoaingo Udala

“Andoaingo kasuan, argi eta garbi, ia linea guztien maiztasuna murrizten da”

“Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun eta Lurralde Antolaketako Departamentuak autobus zerbitzuaren berrantolaketa plana aurkeztu du. 2017ko irailaren 7an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zuen aurreproiektua, eta han ikus daitekeena-



G2, G3 eta G4 autobus ibilbideak Andoaindik eta Urnietatik igarotzen dira.

ren arabera, agerian geratzen da egun martxan dauden lineatan hainbat murrizketa egin nahi dituztela: Andoaingo kasuan, argi eta garbi, ia linea guztien maiztasuna murrizten da.

Hasiera batean alegazio epea urriaren 7ra arte bazen ere, epe hori luzatu egin dute urriaren 23ra bitarte. Hori dela eta, Andoaingo Udal gobernua alegazio orri bat jarriko du herritarren eskuera aurreproiektua gelditu dezaten eskatuz. Alegazio orria Udalean sinatu ahal izango da: urriaren 20ra bitarte, 09:00etatik 14:30era Atarian. Urriaren 19an, ostegunean, berriz, 17:00etatik 19:30era udaletxeko behe solairuan ere egiteko aukera egongo da.

Andoaingo Udaleko webgunetik ere eskuratu ahal izango da alegazio orria”.

LAB sindikatua

“Kostuen gutxitzean eta zerbitzuaren oreka ekonomikoan oinarriturik, murrizketa izugarriak aurreikusituzte Buruntzaldean”

LAB sindikatuak gogor kritikatu du Aldundiak aurrera atera nahi duen egitas-

moa. Erabiltzaileak eta gidariak nabarmen kaltetzen dituelako.

- **G2 Andoain-Urnieta-Hernani-Donostia** “Aldundiak zerbitzua murriztu nahi du %13an astean zehar, eta %42 asteburuan eta jai egunetan. Zerbitzu honen erabiltzaile nagusiak ikasleak eta langileak dira. Gainera, bus gidariek ibilbidea 6 minutu azkarrago egitera behartu nahi dituzte eta langileek hori betetzea ezinezkoa dela diote”.
- **G3 Andoain-Ospitaleak** “Gizarte mailako zerbitzu garrantzitsua da eskualdeko herritarrentzat. Erabiltzaile gehienak osasun arazoengatik edota lanera joateko erabiltzen dute. Aldundiak bidaien maiztasuna murriztea aurreikusten du: Astean zehar 25 bidaietatik 14 izatera, eta asteburuetan 25 bidaietatik 8 izatera”.
- **G4 Urnieta-Hernani-Donostia gauekoa** “Ibilbidea luzatu egingo dute eta gidariek ibilbidea egiteko 54 minutu izango dituzte. Denbora gutxiegi, gidarien ustean. Gaueko zerbitzu berezi hauetan beharrezkoa da Aldundiak neurriak aurreikustea autobusen eta batez ere langileen segurtasuna bermatzeko”.

JOKABIDE EZBERDINA

URNIETAKO UDAL ORDEZKARIEKIN BAI, ANDOAINGOEKIN EZ

Azken egunotan Andoaingo eta Urnietako Udalek argitara eman dituzten oharren arabera, Mugikortasuneko eta Lurralde Antolamenduko diputatu Marisol Garmendia Urnietako Udal ordezkariekin bildu da, bere deia erantzunez. Garmendiak haien proposamena aurkeztu zien. “Argudioak entzunda, Urnietako Udalak bere desadostasuna agertu nahi izan du Aldundiak zerbitzu publikoko autobusen erregulazio eta kontzesiorako aurkeztu duen aurreproiektuarekin eta zenbait alegazio aurkeztu ditu”.

Andoaingo Udalarekin ez da, ordea, bildu. Udalak argitara emandako oharren arabera “Ana Carrere alkateak bilera eskatu zuen Marisol Garmendia Mugikortasun eta Lurralde Antolaketaren diputatuarekin bi eskaera zehatz egiteko: aurreproiektua bertan behera uztea eta Udalekin zein herritarrekin prozesu berri bat abiatzea. Erantzuna ezezko borobila izan zen”.

HERRI GALDEKETA ANDOAINEN

Lau hitzordu azaroaren 5eko herri galdeketaren atarian

Kataluniatik datozen albisteei begia luzatuta, Andoain Esan taldekoek aurrera darraite datorren azaroaren 5erako herri galdeketa antolatzeko lanetan. Egun berean bozkalekuetan egoteko laguntzai-

leen premia izango da, eta bitartean herri mailan kontsultarekiko sentsibilizazioa areagotzeko datozen egunetarako ekitaldi sorta antolatu dute.



Urriak 28, larunbata
GIZA-KATEA

Eguerdiko 12:00etan abiatuko da Goikoplazatik Santa Krutz zubiraino.



Urriak 30, astelehena
SOLASALDIA

Julen Telleria eta Andoaingo gazteen arteko solasaldia Basteron, iluntzeko 19:00etan hasita.



Urriak 31, asteartea
HITZALDIA

Anjel Oiarbide Gure Esku Dago ekimeneko bozeramailea Basteron arituko da, iluntzeko 19:00etan hasita.



Azaroak 2, osteguna
MAHAI-INGURUA

Beñat Sarasola, Kike Amonarriz eta Oihana Iguaranen arteko solasaldia Basteron, iluntzeko 19:00etan hasita.

Andoain Esan taldeak datozen egunetarako hitzordu ezberdinak antolatu ditu. Aste honetan ordea, **Gure Esku Dago**k proposatuta, elkarretaratzea deitu zuten Goikoplazan Kataluniako ANC eta Omnium Cultural taldeko Jordi Sanchez eta Jordi Cuixart bozeramaileen atxiloketak salatu eta elkartasuna adierazteko.

Galdeketa iristeko azken egunetarako ekimen sorta iragartzeko moduan daude. Giza-katea egingo dute urriaren 28an, eta hurrengo egunetan hiru hitzordu gehiago Bastero kulturguneko ekitaldi aretoan. Horietatik lehena gazteei zuzendurikoa izango da. Andoaingo gazteekin batera, Julen Telleria telebista aurkezleak solasaldian parte hartuko du.

HERRI KONTSULTAN BOTOA EMATEKO BI AUKERA DAUDE

- **Aurretiatzko botoa:** Urriaren 26tik azaroaren 4ra, Kale Berrian dagoen lokalean eman daiteke botoa.
- **Egunean bertan:** Azaroaren 5ean, goizeko 09:00etatik iluntzeko 20:00etara Zumea plazan, Juanita Alkain plazan eta Goikoplazan.

HAMASEI URTETIK GORAKO EK EMAN DEZAKETE BOTOA

- **Adina:** 2017ko azaroaren 5ean 16 urte edo gehiago dituen herrikideak izango du botoa emateko eskubidea. Beti ere, botoa eman ahal izateko, pertsona horrek Andoainen erroldatua egon behar du. Derrigorrezkoa izango zaio herrian bertan erroldatuta dagoela frogatzea.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



Gipuzkoako Foru Aldundia

ELKARRIZKETA

Ramon Zalakain dendari eta DJa

Dendaria da ogibidez Ramon Zalakain kaletxikitarra, baina ahal duen aldiro denbora hartzen du DJ gisa jaialdiak musikaz girotzeko, edota film eta marrazki bizidunen bikoizketak egiteko.

Aitortzen du barru-barrutik ateratzen zaiola zoroarena egitea, eta hortik datorkiola antzerkirako zaletasuna. DJ lanaz, bikoizketaz nahiz antzerkiaz hitz egin du.

Gero eta plaza gehiagotan aritzen zara DJaren zereginetan...

Ramon Zalakain: Urte mordo daramat auzo eta herriko jaietan, disko-festetan, ezkontzetan... Nemux enpresa sortu genuen lagun batek eta biok, eta gero eta zerbitzu gehiago eskaintzen ditugu musikagintzari lotuta, era guztietako ekitaldiak girotze aldera. Andoainen dauka egoitza gure enpresak.

Beti gustatu izan zait farandularen mundu hori, txoroarena egitea, musika jartzea eta jendea dantzan jartzea... Txikitatik, telebista aurrean jartzen nintzenez bertan agertzen zirenen aurpegiak, keinuak, ahotsak... imitatzen aritzen naiz.

Kanpotik ikusita lan polita dirudi musika jartzea eta jendea dantzara animatzea...

R.Z. Ezkontzetan adibidez, jendeak zera esaten dit: "Hik, Ramon, izugarri ondo pasako dek!" Baina erantzukizun handia du hor egin beharrekoak. Gogokoa dudalako aritzen naiz horretan noski, baina ez naiz gozaten hasten behin ezkon-kideak baltsa dantzatzaren duten arte. Egun batzuk pasa ostean, bikoteak adierazten badizu oso lan polita egin duzula, orduan asebeteta sentitzen naiz egindako lanarekin. Ezkontza-ekitaldia bikotearentzat bizitzako gertakizunik garrantzitsuena da, edo ia, eta musika jartzailearen funtzioa ezinbestekoa da dena ondo irten dadin.

Zer nolako eboluzio izan du ezkontzen kontuak azken urteetan?

R.Z. Krisi ekonomikoaren eraginez, jaitsi egin zen kopurua; iruditzen zait bikoteek aurrerago uzten zutela ezkontzaren abenturan sartzeari, gastuak zirela-eta. Baina berriro ere beroaldia etorri da, poliki-poliki; egundoko igoera izan dugu aurreko behintzat, lanari dago-kionez. Bestalde, esan behar da lehen ezkon-kide gehiago izaten zirela elizatik pasatzen zirenak udaletxe edo epaitegitik baino. Egun, berdintzera jo duela esango nuke.

Zeremoniari dagokionez, berriz, aldatu egin da alderdi askotan. Iraganean, ilunabar-gau aldera mugatzen zen gure lana. Egun, ezkontza ofizioaren ostetik hasten gara jotake jatetxean, koktela zerbitzatzaren unetik beretik. Banketea zehar, plater bakoitzak bere musika dauka, eta bazkaltarrak mahai-



Ramon Zalakain kaletxikitarra, auzoan bertan daukan okindegian.

tik altxa eta dantzan jartzeko kapaz izaten gara askotan. Bestalde, eta geroz eta gehiago, ezkontzaren erritual ofiziala jatetxera eramateko joera ari da zabaltzen; nahiko estilo amerikarra dela esango nuke.

Donostian behin gertatu zen xextra gonbidatuen artean, musika zela medio. Zuk halakorik bizitu izan al duzue inoiz?

R.Z. Mugida ederra izan zen Donostia-koa, bai! Vaya semanita-ko esketxak gaintzen zituena. Guri ez zaigu halakorik gertatu sekula, zorionez. Badirudi, edaria tarteko, ezkontzan denak libre izan behar duela, eta beti hurbiltzen zaigu baten bat matraka ematera, baina beti modu onean, eta jada ikasita gaude harrera ona egiten eta toreatzen; dena den, bi lankide joan ohi gara, badaezpada. Gainera, lehen esan bezala, ezkon-kideekin alde aurretik garbi hitz egiten dugu zeintzuk diren alde batzuen eta besteen musika zaletasunak.

Eta bestela ere, ordenagailuekin egiten dugu lan, eta edozein abesti eskatu ahal, jaitsi dezakegu internetetik. Malguak izaten saiatzen gara.

DJen gorakadak berbena-taldeen lana gainbehera ekarri du aspalditxotik...

R.Z. Jendea konparatzen hasten da batzuekin eta besteekin mugitu behar den azpiegitura eta musikari kopurua, eta jakina, DJ bat kontratatzea erosoagoa izan daiteke; gainera, internetaren baliabidea eskura daukagu edonoren eskaerari erantzuteko, lehen esan bezala. Dena den, nik uste denentzat dagoela tokia. Dantza taldeek ere bere espazioa eduki behar dute, eta egiazki, berreskuratzen ari da formatu hori festetan. Izan ere, nori ez zaio gustatzen talde bat zuzenean entzutea? Niri bai, behintzat.

Nola sartu zinen bikoizketaren munduan?

R.Z. ETBko telesailetan figurante gisa hasi nintzen Donostiako agentzia bate-

kin, orain urte batzuk: Goenkale, Pilotari eta antzekoetan. Segidan bikoizketa ikastaroa egin, eta horrela murgildu nintzen arlo horretan. Nafarroako estudio batean irabazi nuen nire lehen soldata; Play-boy kanalarentzat izan zen, kutsu erotiko-festiboa zeukan programa batekin. Irrati-esale baten ahots propioa daukadala esaten didate, ahots grabea; eta hori dela eta, nahiko sailkatu samarra nago. Fiskala, polizia, suhiltzailea edota gaiztoa izatea tokatzen zait maiz (barreak).

Zein telesailatan jartzen ari zara ahotsa une honetan?

R.Z. ETB3ko marrazki bizidun gehiengotan aritzen naiz, adibidez, *Noddy* jostailuen munduan, *Pat* postaria... Helduentzat, berriz, AXN telebista kanalaren *Chicago fire* seriean, suhiltzaile bat naiz bertan. Arreta eta belarria jarritz gero, ez da zaila ni identifikatzea. bi urte dituen Lorea, alabak, jada lortzen du aita nor den bereiztea!

Baestalde, euskarazko irratietan jartzen diren zenbait iragarkietan ere entzun daiteke nire ahotsa: Eroski, Carrefour, Once, Seat...

Nola dago sektore hori?

R.Z. Krisiak latz kolpatu zuen orain urte batzuk; politikoak nondik hasiko murrizten aurrekontuak, eta hortik jo zuten. Lanbidea utzi egin behar izan zuten bikoizle izatea ogibidetzat zeukaten aktore askok. Nolanahi ere, sektorea burua altxatzen ari dela dirudi azken urteetan.

Euskara eta euskal kultura goratu behar dugula adierazten da aho betez, baina nik uste bikoizketa alde batera utzita dagoela. Nire belaunaldia eta beste asko euskarazko marrazki bizidunekin hezi gara, *Dotakon*, *Dragoi bola* eta antzeko serieekin, eta belarria euskararekin egin dauka horri esker. Makina bat telebista eta plataforma daukagu eskura gaur egun, baina hemengo instituzioek ez badute bere tamainan baloratzen euskarazko bikoizketa, jai du euskara berak!

Antzerkirako jausia noizko?

R.Z. Arantza hori daukat, eta akaso egunen batean egingo dut. Jendeak lotsagabe bat naizela pentsatuko du, baina nik ere sufritzen dut beldur eszenikoa, zera!

Andoingo Hogar Extremeño elkarteak antolatuta

Herrien eguna, larunbatean

XXI. Herrien Jaia ospatuko da Zumea plazan, larunbat honetan. Hainbat ekitaldi iragarri dira goiz eta arratsalderako. Jaia antolatu duen Hogar Extremeño-El Miajon de los Castuos elkarteak andoindar guztiei gonbitea luzatu die, Juanita Alkaindik irtego den kalejiran parte hartu dezaten, edota Zumea plazara hurbil daitezten larunbatean zehar. Ohar baten bidez adierazi dutenez, “40 urteko historia daukan kultur elkarte da, eta 200 bazkide ditu”. Jatorria Extremaduran daukaten mila bat pertsona Andoain bizi dela gogorarazi du elkarteak. “Guztiak zein gure elkarte Extremadurako kultur enbaxadoretzat har daitezke”. Izan ere, elkartearen helburua “Extremadurako kultura, folklorea eta gastronomia Andoain eta Euskal Herrian zabaltzea” da.

LEKU ALDAKETAREN ZERGATIA

Herrien jaia Zumea plazan ospatuko da aurten, urtetan eta urtetan Nafarroa Plazan egin ostean. Iñaki Gomez Hogar Ex-



Hogar Extremeñoeko hainbat kide, idazko edizioan.

tremeño elkarteak presidentek azaldu du aldaketaren zergatia: “Gure kultura ezagutzera ematea izan da betidanik gure helburua, eta horretarako Zumea plaza aproposa da. Bizitasuna daukan lekua da, eta bertan biltzen da herriko gazteriaren zati handi bat, agian gure kultura behar bezala ezagutzen ez duena”.

TRIANA ELKARTEA MINDUTA

Azken hogeitun urtetan Hogar Extremeño eta Triana elkarteek elkarlanean antolatu izan dute Herrien Jaia, Nafarroa plazan.

Aurtengoan, ordea, Trianak ez du jaialdian parte hartuko eta minduta dago horregatik. Andaluziako kultura zabaltzea ardatz duen elkarte horrek adierazi duenez, Hogar Extremeñoek jai eguna bere kabuz antolatu du jai gunea Zumea plazara eramateaz gainera, eta guztia euren iritzia kontuan hartu gabe. Gauzak horrela, Triana elkarteak bazkideek batzarrean erabaki dute Herrien Jaian ez parte hartzea aurten, nahiz eta borondatea eduki hurrengo urtetan Hogar Extremeñoekin berriro elkarlanean jarduteko.

Ehiza xeheko txapelketa

Andoingo ehiza xeheko txapelketan **Roberto Arrogante** da txapeldun berria. Ehiza mota horretan, txakurra ibiltzen da ehiza bila eta berak erakusten dio ehiztariari pieza non dagoen. Ehiztari bakoitzak, gainera, denbora guztian epaile baten kontrolatuta egiten du lana. Arrogantek bere txakurarekin eper bat eta bi faisai ehizatu zituen eta garaile ateratu zen Usabelartzan izandako txapelketan. Haren segidan, bigarren **Josu Mujika** geratu zen, baita ere eper batekin eta bi faisaiekin. Hirugarren postua, berriz, **Honorio Martin** bete-



ranoak eskuratu zuen, bi eperrekin. Txapelketa **Ontza** elkarteak antolatzen du. Argazkian, lehen bi sailkatuak **Joseba Erki-**

zia lehendakariarekin batera. Hirugarren saria Martinen biloba **Julen Gabilondok** jaso zuen.

Dardo txapelketa Zerun

Zumea plazako Zeru tabernan dardoekin aritzen den taldea biltzen da, eta haietako batzuren maila goi mailakoa da. Urriaren hasieran, esaterako, Tarragonan nazioarteko dardo txapelketa jokatu zen eta Zeru taberna bere mailako txapeldun izan zen. KO izeneko kopan, bestalde, txapeldun-orde izan ziren. Bakarkako txapelketan, bestalde, Seco hirugarren sailkatu zen.



Zeru tabernako Iñaki eta Loli, Jon Gutierrez, Omar Oliveira eta Jose Manuel Seco Okeletxeo Iñigo Berasategirekin batera.

Udalaren deia zaintzaile lanetan ari diren herrikideei

Andoingo Udaleko Gizarte Zerbitzuetatik ohar garrantzitsua helarazi nahi diete menpekotasuna duten pertsonen zaintzaz arduratzen diren pertsonari. Euskadiko aldizkari ofizialean zaintzaile horien kompetentzia profesionalak ebaluatzeko eta egiaztatzeko prozeduraren deialdia argitaratu da, eta horren arabera titulaziorik ez dutenek derrigorrean formakuntza jaso beharko dute.

Lanbide kualifikazio guztien artean, deialdian honako bi aipatzen dira: “Pertsona etxean gizarte-arreta eta osasun-arreta” eta “Mendeko pertsonen gizarte-erakundeetan eta gizarte-arreta eta osasun-arreta ematea”.

2018tik aurrera lan horretan jarduteko lehen aipatutako bi lanbide kualifikazioetatik baten bat izan beharko da, edo bestela Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuetako zuzendaritzak emaniko

laguntzaile pertsonal gisa aritzeko behin-behineko edo ez-ohiko ziurtagiria. Ikastaroetako batean izena ematea nahikoa izango da behin-behineko ziurtagiri hori eskuratzeko, 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera eta 2022 arteko indarraldia izango duena. Izena emateko eskara urriaren 20a baino lehen egin behar da Gipuzkoako hainbat ikastetxetan. Eskualdean, honako lekuetan:

- **Hernani:** Gizarte-berriztapena. 943 551 958.
- **Usurbil:** Usurbil. 943 364 600.
- **Lasarte-Oria:** Eagi Lasarte. 943 000 500.
- **Zizurkil:** Fraisoro Eskola. 943 692 162.

INFORMAZIOA

Antrosia Olabide Gizarte Zerbitzuen gunea, 2. solairua. Pio Baroja 1.B. Telefonoa: 943 304 343. gizarte-zerbitzuak@andoain.eus.

2018ko Udal egutegia

“Parte hartzearen filosofiari eutsiz, Andoingo Udalak datorren urteko egutegia herritarren partaidetzarekin osatu nahi du, lehiaketa bidez aukeratuko diren 12 argazkiekin”, esaldi horrekin abiatu du Udalak 2018ko egutegia osatzeko lehiaketa. Oinarriak Andoain.eus webgunean ikusgai daude.

Hona, laburbiduta:

- Andoingo herriari edota herritarrei loturik behar du, eta egileak zein hilebeteri dagokion proposatuko beharko du. Argazkiek argitaragabeak izan behar dute.
- Sariak: argazkia egutegiaren hilabeteetako batean agertzea eta ehun euroko dirusaria.
- Argazkien formatua: digitala. TIFF formatuan, horizontala eta 2-10 megabitarteko tamainakoa.
- Lehiakideak 16 urtetik gorako adinekoak izango dira. Argazkietan, lehenengo edo erdiko planoan,

norba itazalduko balitz, pertsona horren baimena aurkeztu beharko da.

- Aurkezteko epea: Azaroaren 13a, Udaleko Atarian (Goikoplaza z/g. 20140 Andoain) edo www.andoain.eus webgunean.
- Epaimahaia bost pertsonen osatuko dute: Kulturazko zuzendakariak, argazkigintzarekin edo arte munduari lotuta beste bi eta artxiboko arduraduna.
- Azaroaren 21ean jakinaraziko dira emaitzak. Lehiaketatik egutegirako 12 argazki aterako ez balira, epaimahaia beste era batera osatzeko eskubidea izango du.
- Hautatutako 12 argazkiak Andoingo Udalaren jabetzan geldituko dira.
- Hautatu ez diren argazkiak 2017ko abenduaren 1a baino lehen jasoko dira. Ordurako erretiratu ezean, Udalaren esku geldituko dira.

Olazabalen bidea

“Jose Mari Olazabalen bidea” sarirako hautagaiak aurkezteko epea zabalik dago, urriaren 30era arte. Herriko edonork proposa dezake; nahikoa

du horretarako Caritasek Zumea kalean daukan egoitzara jotzea, edota caritasandoain@yahoo.com helbide elektronikora idaztea.

MODA ETA EUSKARA ZIKLOAN IKASITAKOAK

PREZIOA **29€**

langileei batez
beste ordaintzen
zaiena **0,18€**

European saltzen diren
jantzi gehienak **Asiatik** datoz

Ehungintzan diharduten langileen

%80 emakumeak dira.

“ **Indarkeria kontsumitzen dugu**
Indarkeria matxistaren
barruan sartzen diren
elementu guztiak agertzen
dira modaren ekoizpenean.
Badira alternatibak.

MADDALEEN ADURIZ

Moda genero berdintasunaren ikuspegitik



“ **Moda oso kapritxosoa da**
Garbi eduki behar da
mukizapi moduko bat
zarela. Egun batean
behar bazaituzte, ondo,
baina behar ez bazaituzte,
goizetik gauera, kito,
ez zara ezer. Kolpe
handiak hartzen dira.
Ofizioak bide motza du
eta jende asko dago.

Modari esker lanbide asko
baloratu ditut. Jostunak,
diseinatzaileak, argizta-
tzaileak, laguntzaileak...
jende askoren lana dago
argazki bakoitzaren atzean,
eta ez dira inon agertzen.
Modeloari garrantzi
handiegia ematen zaio.

MIKEL ARAMENDI

Modelo maskulinoa:
Modaren beste ikuspegia ote?

Ekoizpena:
Langileen
esplotazioa, baldintza
tamalgarriak, lana
galtzeko beldurra...

Hariaren bi muturrak

Kontsumitzailea:
Gorputz estereoti-
patuak, neurri eta
estetika jakin
batera
lerratu beharra,
edertasun
lorrezina helburu...



Hitzaldietan ikasitakoak



Nortasunaren
eta janzkeraren
arteko erlazioa
**Psikologiaren
araberako tipologia**

“ **Gizarteak arroparekiko
erlazio positibora bultzatzen
gaitu, baina erlazio positiborik
ez izatea ez da txarra,
psikologikoki behintzat ez.**

ALAZNE AGIRRE

Jantzen zaren bezalako ote zara?

Sentsoriala. Naturarekiko
kontaktu estua behar du, haizea
eta eguzki izpiak larrian sen-
titu. Moda edo arropa, oro har,
gogaikarria zaio. Arropa zabala
estimaten du, oihel goxoak,
mugimendua.

Konformista. Jantziari ez
dio denbora handirik eskaini-
tzen, konformatu egiten da.
Arropak nagia ematen dio, ez
dakitelako nola konbinatu.

Zentzuzkoa. Arropa-armai-
ruaren aurrean daukan filosofia,
sukaldeko armaruaren aurrean
daukan bera da. Ez dago senti-
mendurik. Gizonak gehiago dira
emakumeak baino.

Babeslea. Hotz handia
pasatzen du fisikoki, eta emo-
zionala ere izan liteke. Arropa
asko jantzeko joera du. Estilo
definitu gabea.

Estutua. Tipologia sentsoria-
laren aurkakoa: arropa beti estu
behar du. Tentsio muskula-
rrari lotua.

Sublimatua. Edozer
jantzita ere, beti apain doa.
Barrukoaren eta kanpokoaren
artean konexio handia. Autoes-
timu handikoa da, narzisismo
puntu bat ere badu. Arropa oso
gustukoa du.

Asebeta. Ez du aholku-
rik onartzen, bere janzkera
iruditzen zaiolako onena. Oso
kritikoa da besteekin. Arropa
beharrezko du, ziurtasuna
areagotzen diolako.

Lotsatia. Beldurra (desegoki
agertzean, biluztasunari...)
edota bere gorputzagatik lotsa
sentitzen duena.

Lineala. Moralitasun han-
dikoa da, esanekoa. Arropa
linealak (uniforme itxurakoak)
ziurtasuna ematen dio.

Arroparekiko erlazio positiborik ez

Arroparekiko erlazio positiborik ez



KIROL ALBISTEAK

Duela 55 urteko apustu sonatua gogoan hartuko dute

Aiako "Diva" harri txapelketa, igandean

1962an Juan Iguaran eta Martin Lizeaga urnietarrak, Tolosako zezen plazan jokatuak harrijasotze apustuak zeresana ematen jarraitzen du 55 urte geroago.

Bi urnietarren apustu hura berdinketarekin bukatu zen, ez zen izan ez irabazle, ez galtzailerik, eta garaiko urnietarrak lerratu zituen baten ala bestearen alde. Duela bost urte, apustuaren 50. urteurrena betetzearekin batera, Iñistorra elkateak Urnietar Prestu izendatu zituen bi harrijasotzaile urnietarrak. Orain, apustu hartatik 55 pasa direnean, Aiako Idi Proba elkarteak txapelketa berezia antolatu du. Txapelketa hau Aiako probalekuan gauzatuko da datorren igandean (urriak 22) arratsaldeko 18:00etan hasita. Txapelketa horretan harri-jasotzaile bakoitzak 3 minutuko bi tanda egin beharko ditu, bata duela 55 urte Juan Iguaranek erabilitako harriarekin, eta bestea Martin Lizeagak apustu berean erabilitakoarekin. Kilo gehien bizkarrera-



Duela bost urte, apustuaren 50. urteurrena betetzearekin batera, Iñistorra elkateak Urnietar Prestu izendatu zituen bi harrijasotzaile urnietarrak.

tzen duena izango da garailea. Izena eman duten harrijasotzaileak hauek dira:

- Aimar Irigoien (Errezil).
- Aimar Galarraga (Aia).
- Gorka Etxeberria (Orio).
- Mikel Lopetegi (Zarautz).

- Jexux Mari Iruretagoiena Izeta III (Aia).
- Xabier Peñagarikano Peña (Aizarnazabal).
- John Meter Scout (Algorta).
- Julio Jimenez (Avila).
- Goikoetxea (Elgoibar).

Emaitza ona, baina partida zaila senior mailako neskentzat

Eibar 10-22 Urnieta



Partida ona urnietarrena, bereziki defentsan egin zutena. Aurkariari kostatu egin zitzaion

atea zulatzea, defentsan lan onari eta atezainaren geldiketei esker.

Markagaiak bestelakoa adierazten badu ere, partida lehia eta gogorra izan zen.

Zanpatuzen irteera bertan behera geratu da

Larunbat honetarako euskal Pirinioetara antolatutako irteera atzeratzea erabaki dute, eguraldiaren aurreikuspena kaskarra delako.

Gaur gaurkoz atzeratu egin dute hitzordua. Ia ziur urriaren 28an burutuko dute ibilaldia. Data zehatza, datorren Aiurri astekarrian.

Eskaladan trebatzeko ikastaroa Aritxulegin



Joan zen asteburuan Zanpatuz mendi elkarteko hainbat kide Aritxulegi aldera abiatu zen, Mikel Martiarenaren gidaritzapean.

Segurtasunari buruzko oinarrizko ikasgaiak landu zizuten, hasiberriei zuzenduriko ikastaroan. Zanpatuz ekimen betean dabil.

Urnieta 2-3 Euskalduna

Seigarren jardunaldia:

Euskalduna-EAS08
Ostirala, 20. 20:00.
Mundarro-Urnieta
Larunbata, 21. 16:00.

Bosgarren jardunaldia:

Urnieta 2-3 Euskalduna

Sailkapena:

1. EAS08	13 puntu
2. Euskalduna	11 puntu
9. Urnieta	6 puntu

Jubenil mailako partidak Urnietan

Urnieta B 2-3 Euskalduna A
Urnieta A 4-0 Ostadar

Sailkapena, 3. multzoa:

1. Euskalduna A	15 puntu
-----------------	----------

Sailkapena, 5. multzoa:

1. Urnieta A	12 puntu
--------------	----------

Asteburuan:

Urnieta A-Ekintza B. Lar, 16:00.
Mundarro-Urnieta B. Ig, 12:00.

Leizaran eskubaloitza taldea

Senior Neskak:

Leizaran 23-25 Aiala ZKE

Jubenil mutilak

Hettich ZKE 26-31 Leizaran

Leizaran 29-25 Ordizia

Kadete Neskak

Elgoibar 14-17 Leizaran Urdiña

Leizaran Urdiña 27-11 Tolosa CF

Kadete Mutilak

Leizaran Imatel 37-26 Eibar

Amenabar 29-36 Leizaran Imatel

OHARRA: BAZKIDE TXARTELA

2017/18 denboraldiko bazkide berri

txartela berritzeko edo bazkide berri

izateko kanpaina martxan dago:

info@leizaraneskubaloia.com

Ganbara saski taldea

AURREKO JARDUNALDIA:

Ganbara SenM 59-51 AIB.

Sailkapena:

3. Ganbara	7 puntu
------------	---------

ASTEBURUKO PARTIDAK:

Ganbara InfM-Bergara A.

09:00 Ubitarte.

Urriak 21, larunbata.

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.



TOKIKOM

Ekoizlea:



Laguntzaileak:



Aldizkari honek bi udalerrri hauen dirulaguntza jasotzen du:



Argitaratzailea:



Aiurri eskuragarri:

Etkez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 36 eurokoa da. Urnietan, 31 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. Faxa: 943 300 731. @: andoain@aiurri.eus. Webgunea: www.aiurri.eus

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda. andoain@aiurri.eus
Erredaktoreak:
Xabier Lasa, Joxeba Lizeaga, Izarne Olano eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trutxuelo eta Jon Ander Ubeda. diseinua@aiurri.eus
Publizitatea:
Fernanda Irazu. publicitatea@aiurri.eus

Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.eus www.aiurri.eus
Lege Gordailua: SS-1078/04. ISSN: 1698-4870. **Tirada:** 6.000 ale.

Kudeatzailea, banaketa arduraduna:

Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus. Tel.: 943 300 732

Banatzaileak:

Mikel Arregi (Andoain), Isabel Salaberria (Urnietan). **Inprimategia:** Zeroa Multimedia. Huarte-Iruñea.

Agenda

URRIAREN 20TIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.eus

Zinema

- Andoain, Bastero**
- Handia**
Estreinaldia. Euskaraz, gaztelaniazko azpitituluekin. Larunbata, 21. 19:30, 22:00. Igandea, 22. 19:30. Astel., 23. 19:30, 22:00.
- La Lego Ninjago**
Larunbata, 21. 17:00. Eusk. Igandea, 22. 17:00.
- Detroit**
Larunbata, 28. 19:30, 22:00. Igandea, 29. 19:30. Astel., 30. 19:30, 22:00.
- La Lego Ninjago**
Larunbata, 28. 17:00. Igandea, 29. 17:00.

Urnietan

- Mendi Tour**
3 film laburren proiektzioa: 'Annapurna III - Unclimbed', 'Boys in the bugs', 'Freedom under load'. Ostirala, 20. 19:00.
- Vaiana**, haurrentzat. Igandea, 22. 17:00. 4 euro.

Musika

- Andoain, Bastero**
- Kalakan & Duo L'Incontro:**
Txalapartarekin batera, harpa eta oboea. 21:30 12 euro. Urriak 20, ostirala.
- Benito Lertxundi:** 50 urteko ibilbidea ospatzeko saioa. 21:30 18 euro. Abenduak 1, ostirala.
- Gaztetxean:** Azken sus-traiak, Odolaren mintzoa, DJ Mai. Urriak 21, larunbata.

Farmaziak

- Andoain**
- Zatarain:**
Elizondo plaza, 6. Gaez: Etxebeste (Hernani). Urriak 21 eta 22.

Urnietan

- Egunez eta gaez: Etxebeste (Hernani). Urriak 21 eta 22.

Gazte eguna

- Andoain**
- Ernaik antolatuta**, egun osoko ospakizuna. Egun osorako txartelak Irunberriin salgai, 15 eurotan. Kontzertura bakarrik doanarentzat 3 euro.
- 10:00** Gosaria eta jokoak Irunberriin.
- 12:30** Manifestazioa, Goikoplazatik.
- 14:00** Bazkaria.
- 17:00** Elektrotzaranga, kalejira Gaztetxe aldera.
- 20:00** Afari-merienda Gaztetxean.
- 22:30** Kontzertua Gaztetxean: Azken sus-traiak, Odolaren mintzoa, DJ Mai. Urriak 21, larunbata.

Barrikotea

- Andoain**
- Andoaindarra** elkartean, bazkide diren eta ez direnentzat. Menua: txorizoa sagardo erara, askotariko frijituak, bakaillaoa piperrekin, txahal-saihetsa txingarretan, gazta, irasagarra, in-txaurrak, kafea eta sagardobarrikotea. 20 euro. Izen-ematea, azken eguna: Urriak 21, larunbata. 14:00 Barrikotea. Urriak 28, larunbata.

Bazkaria

- Andoain**
- 59ko kintoen** bazkari eguna. Izen-ematea 60 euroko diru-sarrerarekin egin behar da. Kutxabank: ES73 2095 5022 18 1060843686. Epea: Azaroak 8. Bazkaria: Txertota jatetxea. Azaroak 11, larunbata.

Erakusketa

- Andoain, Bastero**
- "Palimpsesto"**, hainbat artisten eskutik. Azken eguna: Azaroak 11.

Jaialdia

- Andoain, Bastero**
- Folklore jaialdia** Zumea plazan, egun osoan zehar. **11:30-12:00** Kaletxiki txaranga. **12:15** Kalejira Basterotik Zumea plazara. **12:40** Aurreskua. **12:50** Olagain elkarteko txistulariak. **13:10** Urki dantza taldea. **13:30** Alberto Agirre abesbatza. **13:50** Kaletxiki txaranga. **17.00-18:00** Zumba maratonia. **18:15** Donostiako Extremadura zentroko abesbatza eta dantza taldea. **19:00** Zuena emakumeen elkarteko dantza taldea. **19:30** Lasarteko Zambra dantza taldea. Urriak 21, larunbata.

Galdeketa

- Andoain**
- Andoain Esan** ekimenaren eskutik, herri galdeketa Andoainen. Hitzorduak: **Urriak 28, larunbata:** Giza-katea. 12:00 Goikoplaza. **Urriak 30, astelehena:** Gazte solasaldia Julen Telleria telebista aurkezle eta irrati esatariarekin. 19:00 Bastero. **Urriak 31, asteartea:** Hitzaldia elebitan Anjel Oiarbide Gure Esku Dago ekimeneko buruzagiarekin. 19:00 Bastero. **Azaroak 2, osteguna:** Mahai-ingurua Kike Amonnarriz, Beñat Sarasola eta Oihana Iguaranekin. 19:00 Bastero. **Azaroak 5, igandea:** Herri galdeketa Andoainen. Boza emateko guneak: Goikoplaza, Juanita Alkain plaza, Zumea plaza. 09:00-20:00.

ZORION AGURRAK


ZORIONAK



Maddi 8 urte beteko ditu hilaren 23an. Ondo pasa, urte askotarako maitia! Etxekoak.

ANDOAIN

ZORIONAK



Jonek urriaren 14an 22 urte egin zituen eta **Oierrek** datorren urriaren 21ean 15 urte. A ze bi rubio!! Ondo ospatu zuen eguna familia eta lagunez inguratuta. Mila muxu etxekoan partez.

ANDOAIN


ZORIONAK



Urriaren 19an **Iratik** lau urte beteko ditu. Muxu potolobat, ondo pasa! Etxekoak.

ANDOAIN

ZORIONAK



Urriaren 19an 12 urte, **Eñaut**. Ondo ospatu zure eguna lagunekin eta familiarekin. Muxu handi bat gurasoeta Nahiraren partez.

URNIETA

ZORIONAK



1,2,3,4,5,6,7 eta 8 dira aurten **t e n g o a n**. Horren goxoa egiten dakizun "Lemon cake" hori dastatzeko irrikitan gaude

Maren. ANDOAIN



ZORION AGURRAK AIURRI:
diseinua@aiurri.eus
www.aiurri.eus
Whatsapp:
619 163 537

Saharari buruzko hitzaldia

Hurria Sahara Andoain taldeak lurralde okupatuei buruzko hitzaldia antolatu du. Datorren asteartean izango da, urriak 24, 19:00etatik aurrera Basteron.

Zaborren bilketa Urnietan

Urnietan organikoaren eta daitekeen edozein zalantza errefusaren edukiontzia sarraile elektronikorekin ireki beharko dira derrigorrean. Udalak adierazi duenez, "edukiontzi berriak irekitzeko sistema oso erraza da, baina sor daitekeen edozein zalantza argitzeko azalpen praktikoak emango ditugu. Hitzorduak Birziklapenaren inguruko beste edozein zalantza argitzeko ere baliatu ahal izango dira". Hitzorduak:

Urriak 19, osteguna

- 18:00-19:30:** -Maximo Iurramendi, 24.
- Azkorte, 6.
- 19:30-21:00:** -Kiroldegia (Pintore, Zubitxo 7)
- San Juan, 36

Urriak 20, ostirala

- 18:00-19:30:** -Langarda (sarrera).
- Santa Leokadia (Isidro Setien 2, atzealde).
- 19:30-21:00:** -Geltoki kalea, 5.
- Errekalde, 1.

Urriak 23, astelehena:

- 10:00-11:30:** -Zabaleta, 6.
- Idiazabal 41 parean.
- 11:30-13:00:** -Idiazabal 40 parean.
- Etxeberri plaza (garajeetako sarbidea).

Urriak 24, asteartea:

- 10:00-11:30:** -Lizardi, 5 (Egape ikastola).
- Aranzubi (San Juan, 2).
- 11:30-13:00:** -Kiroldegia (Pintore, Zubitxo 7).
- Errekalde, 1.